

 www.muskiz.org

 /MuskizUdala

 @muskiz

 @muskizudala

 Muskiz Udala-Ayuntamiento



/ 34. aldizkaria
2020ko uztaila

BI-1640-2017 LG zk.



Bihotz bateko herria, Muskiz beti bizia!

*“Normaltasun
berri”-rako lelo
berri bat*

/3. orrialdea

*492.000
euro Gizarte-
zerbitzuetarako*

/3. orrialdea

*Bizikletak
eta txakurrak
garbitzeko tokia
jarriko da*

/4. orrialdea

*Ekonomia- eta
merkataritza-
sarerako
laguntza-plana*

/5. orrialdea

*Babes Zibila,
elkartasuna
herritarren
zerbitzura*

/6. orrialdea

Editoriala

“Normaltasun berri”-aren aurrean, bat eginik

Pandemiaren hasieratik, gure udalerrinari zerbitzu onenak eskaintzeko ahalegina egin dugu; arrisku handiena zuten gizataldeengan jarri dugu bereziki arreta, eta haien ongizatea lehenetsi dugu. Gainera, badakigu garai zailak direla gure merkataria, ostalari eta autonomoentzat, eta, horregatik, gure sostengua eman diegu.

“*Etorkizunera begiratu eta itxaropentsu izan behar dugu, arduratsu ere bai*”

Etorkizunera begiratzeko unea da orain; “normaltasun berria” dugu aurretik eta itxaropentsu egon behar dugu. Alabaina, arduratsu izan behar dugu, gauzak ongi egin, eta, batez ere, aurrera irteko indarrak batu. Etapa berri batean gaude; Muskizko Udala lanean aritu da, eta hala dihardu, herritarrek egoera hau ahalik eta hobekien igaro dezaten. Zuek zarete gure lehentasun bakarra. Badakigu ez direla garai errazak eta, horregatik, Udalak indarrak batuko ditu, osasun- eta gizarte-krisi larri honi elkarrekin aurre egiteko.

Beraz, uztaleari ilusioz ekingo diogu, baina zuhurtziaz ere bai. Era askotako jarduerak egin ahal izango ditugu; kirola, hondartza edo aire libreko igerilekuak, baina beti zuhurtziaz jokatzuz, eta osasun-neurri guztiak beteta. Uda hau ezohikoa izango da denontzat, baina Muskizen ditugun bazterrak ezagutzeko une bikaina ere izan daiteke. Gure herriak natura eta historia aberatsak ditu.

Uda ona opa dizuet, familia eta lagunekin igaro dezazuela, eta denok berreskura dezagula Covid-19agatik galdutako denbora. Gogoan izan, egoera honetatik denok bat eginda aterako garela!

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea



Muskizko Udaltzaingoa indartuko da, langile gehiagorekin

Udaltzaingoko buruzagia izendatzeko urte hasieran abian ipini zen aukeraketa prozesua bukatu du Muskizko Udalak, zeina etenda geratu baita Covid-19a dela eta sortu den pandemiak eragindako egoera tarteko. Deseskalatze faseak abiatuta, prozedura honi ekin zaio berriro, eta hurrengo egunetan amaituko da, langileak lanpostua jabetzan hartzen duenean.

Beste alde batetik, udako hilabeteetan sortuko diren premia berriei erantzute aldera, Udaltzaingoko plantillari hiru udaltzain laguntzailerik gehitu dizkio Udalak, hain justu ere, ekainaren 17tik irailaren 17ra Muskizko Udaltzaingoa indartu ahal izateko. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak kudeatzen duen bitarteko polizia agenteen lan-poltsa erabilgarri egon bezain azkar, aurreikuspenen arabera, irailean, bi bitarteko polizia agente gehituko dira Muskizko Udaltzaingoko plantillan, lanpostu

horiek behin betiko hornitu arte, Udaltzaingoko eta Ertzaintzako deialdi publiko komunaren bitartez, zeina una honetan etenda baitago eta urte honetako hurrengo hilabeteetan berriro abian jartzea espero baita. Horretaz gain, aurten, uztailean, bitarteko agente bat gehituko da Udaltzaingoko plantillan.

Polizia hurbilagoa

Neurri hauek, eta azken boladan hartu diren beste neurri batzuk, adibidez, ibilgailu berriak eskuratzea, espazio publikoetan trafikoa kontrolatzeko kamerak instalatzea, komisaldegia udalerriko erdigunera mugitzea, bai eta aurrerago bideratuko diren beste egokitzapen batzuk ere, auzotarrarengandik hurbilago dagoen polizia egiteko helburua dute, bai eta polizia gizarteak eskatzen dituen premia berrietara moldatzea ere.



El Cerro elkartearen laguntzarekin, KN95 maskarak banatu dira

Etxez etxe banatu ziren, El Cerro kultur eta kirol elkartearen laguntzarekin. Muskizko 50 boluntariok baino gehiagok lagundu zuten maskarak zorrotan sartu eta banatzen. Hala, Udalak ahalik eta gehien murriztu nahi izan du udalerrian birusa kutsatzeko arriskua, konfinamendu-neurriak desagertzen joan diren unean, bereziki.



Gizarte Zerbitzuek 492.000 euro dituzte erabilgarri, koronabirusaren kalteak arintzeko

Gizatalde jakin batzuen (nagusiak, mendekotasuna dutenak, baliabiderik gabeko pertsonak, genero-indarkeria nozitu dutenak...) beharrei erantzuteko, milioi bat euroko funts berezia sortzea erabaki zuen Muskizko Udalak maiatzean. Horietatik, 200.000 euro Gizarte Zerbitzuen ataleko laguntzak osatzera bideratu dira. Horrez gain, 210.000 €-ko Gizarte Larrialdietako Laguntza egon da, eta Eusko Jaurlaritzak 67.750 € gehitu dizkio; Gizarte Larrialdietarako 15.000 € ere batu behar dira, eta, hala, 492.000 € izan dira guztira. Aurrekontu hori Gizarte Zerbitzuetatik kudeatuko da; Muskizen biziraute-errentak emateko balioko du. Izan ere, dagoeneko 200 espedientetik gora daude, hots, 300 pertsonak baino gehiagok behar izan dezakete.

Pandemia hasi zenetik, Gizarte Zerbitzuak lan handia egiten ari dira Muskizko biztanleekin; zehazkiago, Udaleko errentak jasotzen dituzten pertsona eta familia zaurgarriekin. Izan ere, beste erakunde batzuetatik laguntzarako errentak jasotzen dituztelako (Diru Sarreraren Berme errenta, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eta abar), egoera horretan gera litezkeenak identifikatu dituzte.

Errentak bi helbururekin indartu dira: kasu batzuetan, elikadura-beharretarako (kontuan izanda eskola eta jantokiak itxi direla, besteak beste), eta, beste batzuetan, batere diru-sarrerarik gabe gelditu direnen egoera arintzeko. Zenbatekoak aipatutako araudiaren arabera ezarriko dira (Gizarte Larrialdietako Laguntzak eta Gizarte Larrialdiak).

Horrenbestez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egin duten kontingentzia-plana 3 hilerako ezarri da, hasiera-egunetik hasita, eta maiatzetik abuztura izatea aurreikusten da. Hasierako konpromisoa da finantzaketa berriaren % 50 inguru ematea, eta gainerako % 50aren soberakina kasu berriei erantzuteko erabiltzea, eta laguntzen indarraldia luzatzea 2020. urteko amaierara arte gutxienez.

Lan-karga handiagoa

Azkenik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak kudeatu behar direnez, eta lan-karga nabarmen areagotuko dela aurreikus daitekeenaz, zerbitzu horietan une jakin hauetan langile gehiago jartzeko asmoa dago. Horretarako, laguntzarako langileak eskatuko dira (administrazioko laguntzailea eta gizarte lana), datozen 6 hilabeteetarako.

Bihotz bateko herria, Muskiz beti bizia!

Muskizek badauka "normaltasun berrian" gaudela adierazteko leloa. Lehiaketa bat egin da, eta 30 pertsonak baino gehiagok aurkeztu dituzte leloak; gaur egungo egoera modu positiboan adierazten zuten leloak izan behar ziren, eta, azkenean, epaimahaiak hauxe aukeratu du irabazletzat: Bihotz bateko herria, Muskiz beti bezala. Alicia Garciak bidali zuen leloa, eta 200 euroko saria jasoko du. Lelo hori erabiliko du Muskizko Udalak denboraldi honetan.



Muskizek bat egin du koronabirusaren aurka

Beste behin ere, Muskizek argi utzi du elkartasunezko herria dela. Behar handiena dutenei laguntzeko, elikagaidonazioa ere egin da. DELCOI enpresa muskiztarraren ekimena izan zen; hainbat boluntarioekin batera, besteak beste, auzotarrak, Babes Zibila... udalerrri osoan zehar jaso zituzten elikagaiak.



Muskizko biztanleek maskara solidarioak egin dituzte

Muskizko emakume talde batek maskara solidarioak egin zituen heldu zein haurrentzat, eta Muskizko hainbat dendatan utzi zituzten, herritarrek doan hartzeko. Garbitzeko moduko maskarak zirenez, hainbat aldiz erabil zitezkeen.



Bost iturri berri jarri dira

Muskizko Udalak bost iturri berri jarri ditu, ur edangarria dutenak, herriko hainbat tokitan; besteak beste, kiroldegian. Iturri unibertsala dute, hainbat alturatan, mugikortasun murriztua dutenentzako egokিতuta daude, eta maskotek edateko lekua ere badute. La Llosako antzinako eskoletan, Ibaiko pasealekuan eta Bide Berdean jarri dira.



Bizikletak eta txakurrak garbitzeko tokia jarri dugu Glorieta inguruan

Muskizko Udalak bizikletak eta txakurrak garbitzeko tokia jarri du Glorieta inguruan. Garbitokia doakoa da, eta hainbat ur pistola ditu, presio-maila desberdinekoak, zikinkeria kentzeko. Bizikleta-euskarriak eta txakurren lokarrietarako karkoa ere baditu.

Garbitokia Muskiz eta Areetako hondartza lotzen dituen bidegorritik hurbil dago, eta inguruko mendietan bizikletaz ibiltzeko bideak ere hurbil daude. Horregatik, Udalak espero du zerbitzu berri horrek arrakasta izango duela, bizikletan ibili ohi direnen artean, bereziki. Garbitokia insta-

latzeko, Udalak 10.000 euro inguruko esleipena egin du. Gogora dezagun, halaber, garbitokia herritarren parte-hartze prozesuan jasotako eskaera zela. Horrenbestez, Udalak auzokideen eskaerari erantzun dio.

Bizikleta eta txakurrak garbitzeko garbitokia corten altzairuz egin da, eta dagoeneko erabiltzeko moduan dago. Hormigoizko oinarria du, eta ura irteteko saretak ere bai. Udalak nabarmendu nahi du herritarrek arduraz erabili behar dutela; bizikletak eta txakurrak garbitzeko da, ez motorrezko ibilgailuak garbitzeko, ez eta ura biltzeko ere.



Kale argiztapen sarea hobetu da

Muskizen argiztatu gabe edo argi gutxirekin dauden lekuetan argiztapena hobetzen jarraitzen dugu. Une jakin batzuetan, segurtasun gutxi eskaintzen dute, urrunduta daudelako edo jende gutxi ibiltzen delako (puntu beltzak). Kiroldegiko aparkalekua-ren ingurua hobetu dugu oraingoan.

San Juan eta Autonomia elkartzeko espaloi berria





Ekonomia- eta merkataritza-sarerako laguntza-plana

Muskizko Udalak dirulaguntza deialdi bat egin du herriko enpresa- eta merkataritza-sarearentzat, Covid-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko ezarri zen alarma egoeraren ondorioz bertan behera edo oso kaltetuta gelditu diren jardueretan izan diren galera ekonomikoak nolabait arintzeko, eta jarduera horiei eusten laguntzeko.

Udalak 800.000 euroko funtsa du, eta banakako laguntzen zenbatekoa ezartzeko, eskatzaile bakoitzaren baldintzak hartuko dira kontuan. Gehienez ere, zenbateko hori 5.000 eurokoa izango da. Muskizko merkataritza minorista, ostalaritza eta antzeko jarduerak garatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek edo Muskizko egoitza fiskala dutenek edo bertan errol-datuta daudenek eskatu ahal izango dute. Gainera, egoitza fiskala herrian edukita, beste herri batean jendearentzako irekita dagoen establezimendu bat dutenek ere eska dezakete. Dirulaguntzak hiru ataletan sailkatuta daude. Lehenengoan, Muskizko merkataritza minorista, ostalaritza eta antzeko jarduerak garatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoentzako laguntza-planean agertzen diren baldintzak betetzen dituzten laguntzak ditugu; Muskizko

egoitza fiskala duten eta bertan errol-datuta dauden pertsona fisiko edo juridikoentzako laguntzak; eta bestalde, Muskizko egoitza fiskala duten eta beste herri batean jendearentzako irekita dagoen establezimendu bat duten autonomoentzat. 500 euro eta 1.500 euro bitarteko laguntzak.

Bigarren atalean alokairuak, hipoteka maileguak eta Covid-19aren ondorioz Banakako Babes Ekipo eta higienean egin beharreko gastuak ordaintzeko laguntzak ditugu, lanaldi osoan dagoen pertsona bakoitzeko, aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak izapidetu ez duen langile bakoitzeko edo espediente hori % 100ean bukatu duen langile bakoitzeko. Laguntza horiek 150 euro eta 600 euro bitartekoak dira.

Hirugarren atalean enplegua sustatzeko partida dago. Laguntza eskatzen duen enpresan bertan alarma egoeran zehar kaleratu diren edo kontratua amaitu duten pertsonak kontratatzen direnerako dirulaguntzak dira, eta Muskizko pertsona langabetuak kontratatzeko, betiere horrek plantillaren handitze garbia badakar. Kasu horretan, 500 eurotik 1.200 euro bitarteko laguntzak dira.



Udalekuak eta auzoko festak, bertan behera

Muskizko Udalak, Jai eta Kultura Atalekin batera, herrian udan zehar egin ohi diren jai eta ekitaldiak bertan behera uztea erabaki du. Erabaki hori Eudelen gomendioak aintzat hartuta hartu da, muskiztarren segurtasuna bermatzeko, eta Covid-19aren ondorioz, kutsatzeak eragozteko. Horregatik, Udalak jakinarazi du herrian ez dela izango inolako jai ekitaldirik datorren irailaren 30 arte. Ondorioz, herriko zenbait auzotako festak bertan behera geldituko dira, hain zuzen ere, abuztuan egiten diren La Rigadako festak eta irailean egiten diren Pobeñakoak. Gainera, udalekuak bertan behera uztea erabaki da, bai eta udan Muskizko egin ohi den haurrentzako Uda Gaztea programa ere.

Opariak haur eta nerabeentzat

Muskizko Udalaren Gazteria Atalak saritu egin nahi izan du, Covid-19aren ondorioz, konfinamenduan izan diren haur eta nerabeen jokabide ona. Horregatik, gazteek sorpresaz betetako poltsa bat jaso dute etxean. Guztira, 1.300 haur eta nerabek gauzaz betetako poltsa jaso zuten etxean; 0 eta 12 urte bitartekoek diploma, gozokiak, agenda bat eta margoak; eta 13 eta 18 urte bitartekoek musika entzuteko kaskoak eta sokazko motxila bat.

Hil honetan irekiko dira berriro kirol instalazioak





Elkarrizketa



Muskizko Babes Zibila, herritarrentzako zerbitzura dagoen elkartasuna

Elkartasuna beti izan da Muskizen ezaugarri, eta gaur egungo egoeran, Covid-19aren pandemia dugun honetan ere, herritar bakoitzak bere onena atera du. Bereziki aipatzekoa da Muskizko Babes Zibileko boluntarioek muskiztar guztiontzat egin duten lan bikaina; haiexek izan dira guztion zutabe. Horregatik, Udalak eskertu egin nahi die egingadako lana, eta Raúl Merodiorekin hitz egin dugu, taldeko kide izanik beste kideekin lan horietan buru belarri ibili baita. Hurbiletik ezagutuko dugu nola bizi izan duten alarma egoera, eta zer-nolako lanak egin dituzten Muskizko herritarren mesedetan.

G/ Nola bizi izan dituzue alarma egoeraren lehen hilabeteak? Zuek ateratzen zineten, eta gainerakoak etxean gelditu.
E/ Sentipen nahasiak genituen; errespetua eta, aldi berean, tristezia. Egia esan, herria hutsik ikusteak errespetua ematen zuen. Hilabete zailak izan dira, eta taldeak lan asko eduki du.

“Egunaren amaieran, jendeari lagundu izanak asetzen gintuen

G/ Hasieratik lagundu duzue, 257 irteera egin dituzue elikagaiak eta sendagaiak banatzeko. Kasu askotan, familien laguntza bakarra izan zarete. Zer sentitu zenuten une haietan?

E/ Ia 260 irteera egin ditugu elikagaiak eta sendagaiak banatzeko, baina, horrez gain, askoz ere gehiago egin dugu; Udalaren garbiketa-brigadarekin koordinatu gara, espazio publikoak desinfektatzeko, eta udaltzaingoarekin ere bai, beste zenbait lanetarako.

Argi genuen segurtasun-baldintzak bete behar genituela, Norbanakoen Babeserako Ekipoak erabiltzea funtsezkoa zela, guretzat zein guk artatzen genituen pertsonentzat.

Sentitzen genuenaz, lehen esan dizudana: errespetua, nolabaiteko tristezia, baina egunaren amaieran aseta egoten ginen, jendeari lagundu izanagatik.

G/ Txikienei zorionak ematea, musika... halako ekintzekin, kaleak alaitu dituzue,

auzokideei irribarrea eragin. Txalo ugari ere jaso duzue. Zer esango zenieke?

E/ Egia da, gure artean aipatu genuen kalejirak egin genitzakeela, urtebetetzeetan zorionak ematera joan, herriko haur txikiei bereziki, itxialdia zertxobait arintzeko.

Ezin dut hitzez adierazi Muskizko herritarrekiko dugun esker ona. Denbora honetan zehar, maitasun ugari jaso dugu haiengandik.

G/ Zerk bultzatzen du norbait boluntario izatera?

E/ Niretzat, boluntario izatea da pertsonen laguntzen saiatzea trukean ezer jaso gabe. Norbaiten irribarrea ikustea nahikoa da gure lanarekin jarraitzeko.

Ez ditut ahaztu nahi egoera honetan gurekin batera lanean aritu diren gainerako taldeak: garbiketako udal brigada, udaltzaingoa, Ertzaintza, ambulantiak, Urioste parkeko suhiltzaileak, mila esker bihotz-bihotzez guztioi!



Muskiz piztu egin zen San Juan gauean

6.000 LED argi inguru piztu ziren herrian, ekitaldi sinboliko bezain eder batean. Amaieran, herritar guztiek bihotzez egin zuten txalo, Covid-19agatik hil direnen eta osasungintzako langileen omenez.

Gaztegunean haurrentzako ekintzak egongo dira, hala nola zinema, antzerkia eta magia

Udalekuak bertan behera gelditu direnez, Gazteria Atalak beste ekintza batzuk egin nahi izan ditu, haurrek parte har dezaten. Ekainaren 29tik uztailaren 17ra izango dira, astelehen, asteazken eta ostiraletan, eta osasun-gomendioak beteko dira uneoro (distantzia, maskarak erabiltzea...). Meatzari Aretoan zinema, magia eta antzerkia izango dira nagusiki, goizetan. Filmak 11:00etan hasiko dira, eta ekitaldiak dauden egunetan, 12:00etan. Sarrera doan izango da, eta aforoa mugatua. Jarduerak eta filmak 8 urte arteko haurrentzat izango dira.